

Deportibua, zergatik?

1924an jaio zen Eibarko Klub Deportibua. Sasoi hartan Primo de Riveraren diktadura zegoen indarrean Espainiako Estatuan. Euskara jazarria zegoen, eskoletan umeei eraztuna jartzen zitzaien euskaraz egiten bazuten, eta ondoren zigortu edota jo. Euskaltzaindia 1919an sortu bazen ere, euskararen prestigioa hutsaren hurrengoa zen.

Eibarren, sasoi hartan euskara zen hizkuntza bakarra praktikan, ofiziala ez bazen ere. Baina maila sinbolikoan; hau da, erakunde eta elkarteak izendatzerako momentuan, gaztelaniara jotzen da. Maiatzean Mendizale Federazioa sortu zutenean ere gaztelaniaz bataiatu zuten.

Herriak beti "Klub Deportibua" esan dio gure klubari, erderatik gurera pasatuta, oso estilo eibartarrean. Bestetik, "klub" berba

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan agertzen da; beraz, ez dago zalantzarik aukeratzeko orduan. Bestela gertatzen da "deportibo" berbarekin. Ez da agertzen Euskaltzaindiarenean, eta kontsultatuz gero gaztelania-euskara hiztegiak (Elhuyar, Labayru, 5000, Zehazki), "kirol-" ematen digute ordainetan. Baina ez digu balio, 100 urte hauetan gure klubari "deportibo" esan diogulako, edo "depor". Kirol kluba izendatuko bagenu, ez litzateke mendea egin duen taldea. 75. urteurrenean ere sortu zen kezka (ardura, ez gure dantza taldea), ea Kirol Elkarte, Kirol Kluba, Klub Deportibua... eta Klub Deportibuaren alde egin genuen. Beraz, orain 25 urte ebatzita dago izenarena.

Gaur egun ere, denok bat gatoz Deportibo berba erabiltzearekin. Baina arazoa dator "Deportibua" ala Deportiboa" jarri behar dugun. Euskara batuan Deportiboa beharko luke, "-oa" amaieraduna. Jakinekoa da,

ostera, Eibarren “-oa” bokal elkartea “-ua” egiten dela: astoa-astua, ahoa-ahua... Nire ustez “-ua” erabili beharko genuke. Batez ere, “deportibo” berba ez delako Euskaltzaindian agertzen, eta gure ukitua emanda justifikazio handiagoa izango lukeelako hautuak. Ez batuaren kontra gaudelako, ezta gutxiagorik ere. Gainera, ez ginateke bakarrak izango lokalismoa aukeratu dugunok. Errebal merkatu plaza, “Errebal plazia” bataiatu du udalak. Badihardugu elkartearen izen ofiziala ere “Badihardugu Deba ibarreko euskera alkartia” da: euskera e-z, alkarte a-z eta deklinatuta alkartia “-ia”.

Bertako kide birekin komentatu nuen gure zalantza, Aintzane Agirrebeña eta Asier Sarasuarekin, elkarteko koordinatzaile eta lehendakariarekin, urrenez urren. Biek ondo ikusi zuten “Deportibua” izendatzea, nahiz eta Sarasuak traba bat ikusi zion: deklinatuta ez dagoenean, baliteke “deportibu” erabiltzea batzuek, ez luketelako jakingo “deportibo” dela originala. Nik horretan ez dut oztoporik ikusten, orain arte jendeak ondo erabili duelako. Baina baliteke aurrerantzean gertatzea.

Niri amaieran beste duda bat eragin dit izenak: “EibarKO Klub Deportibua” ala “Eibar Klub Deportibua”? Gaztelaniaz “Club Deportivo Eibar” da; beraz, Eibar da gure izena, ez “Eibarko”. Baina arrotza egiten da “Eibar Klub Deportibua”, ezta?

Orain zuen txanda da. Zuen esku dago erabakia.

Leire Narbaiza Arizmendi